


ZER BERRI



Aizarnazabalen

EKAINA 2024

www.aizarnazabal.eus

GAIAK

- 1- XI. JAN SANO ETA BIZI POZIK AZOKA
- 2- SENDOTZA SAKRAMENTUA
- 3- ADINDUEI OMENALDIA
- 4- ERROMERIA - AFARIA
- 5- SAN KRISTOBAL TXIKI EGUNA
- 6- MEMORIAL GERVAIS ETA JOXE LARRARTE
ERLOJUPEKOA.
- 7- ALAITSU MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAN IZENA EMATEA
ZABALIK
- 8- AIPE ELKARTEA. IDI BAKARREKO PROBEN INGURUKO
OHARRA
- 9- IKASTARO ESKAINTZA
- 10-SAN KRISTOBAL JAIK. AUZO AFARIRAKO TXARTELAK
SALGAI
- 11-UDALEKUAK. BEGIRALE LANPOSTUA
- 12-ERREFUSA EDUKIONTZIAREN ALDAKETA
- 13-ERRIPIDE MOZKETA AIZARNAZABAL ETA ZARAUTZ
ARTEAN

XI. JAN SANO ETA BIZI POZIK AZOKA

Ekainak 1

Larunbatean, *XI. Jan sano eta bizi pozik azoka* ospatuko da. Goizeko 10:00etan hasi eta 14:00ak arte denetarik izango da; bertako produktuak, artisau produktuak, animaliak, umeen txokoa eta poniak umeentzat.

Jan eta edatekorik ez da faltako, bildotsa burruntzian eginda eta txotxetik sagardoa.

12:30etan erakustaldia izango da, *Irrintzi* astoa (Bustieta, Astigarraga) eta *Etoo* zaldiaren (Xanarta, Zumaia) artekoa.

SENDOTZA SAKRAMENTUA

Ekainak 2

Datorren igandean eguerdiko 12:30etan herriko gazte baten sendotza sakramentua ospatuko da.

ADINDUEI OMENALDIA

Ekainak 2

Ekainaren 2an adinduen eguna ospatuko da. Omenduak ondorengoak izango dira:

- ❖ **M^a JOSEFA ARISTONDO AIZPURUA**
- ❖ **SEBASTIAN PEÑA ECHANIZ**

Egitaraua:

- 12:30etan MEZA
- 14:00etan BAZKARIA MUNIOSORO ERRETEGIAN.
Bertsolariak eta Jokin Goenaga musikaria izango dira.

Oharra: Autobusa jarriko da bazkaltzera joateko eta itzultzeko.

ERROMERIA- AFARIA

Ekainak 7

Alaitsu musika eta dantza eskolak triki festa antolatu du ekainaren 7rako. Afarirako txartelak salgai daude:

- Lekua: Uztarrin.
- Azken eguna erosteko: ekainak 2.
- Afaria: bokadiloa (patata tortila edo xolomoa aukeran) edaria, postrea eta kafea 10€

SAN KRISTOBAL TXIKI EGUNA

Ekainak 11

Ekainak 11ean San Kristobal txiki eguna dela eta arratsaldeko 19:00etan meza ospatuko da San Kristobal ermittan.

MEMORIAL GERVAIS ETA JOXE LARRARTE ERLOJUPEKOA

Ekainak 11

Ekainaren 11ean, asteartea, Junior eta Elite mailako gipuzkoako erlojupeko txapelketak ospatuko dira herrian.

Oharra: Trafikotik adierazi dute frogak irauten duen bitartean **errepide nagusia itxita** egongo dela eta, hortaz, Ibañaberrietatik ibili beharko da.

ALAITSU MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAN IZENA EMATEA ZABALIK

Zabalik dago Alaitsu musika eta dantza eskolan izena emateko epea, ekainaren 10era arte.

Izena emateko argibide guztiak eta interesatuek bete beharreko galdetegia telegramen argitaratu dira. Zalantzarik edota informazioa jasotzeko arazorik izanez gero bidali mezua alaitsu.musikadantzaeskola@gmail.com edo liburutegia@aizarnazabal.eus helbidera.



AIPE ELKARTEA. IDI BAKARREKO PROBEN INGURUKO OHARRA

AIPE elkartearen oharra:

Ekainak 7, 8 eta 10ean izango diren idi bakarreko probetan Aizarnazabalen erroldaturikoek sarrera doan izango dute.

Lehentasun osoa sarrera ordaindutakoek izango dutelarik, beraz, beraiek sartu arte itxaron beharko da.

IKASTARO ESKAINTZA

Ongizate emozionala eta autozainketa

Norberaren burua ezagutu, emozioak hauteman eta hauek kudeatzen laguntzeko ikastaroak ematen ditu Saioa Garmendia adituak (informazio gehiagorako <https://www.saioagarmendia.com/>).

Udazkenean egin nahi dira saio hauek, printzipioz bi astetik behin izango lirateke.

Horretarako, ordea, gutxienezko 8-10 laguneko taldea osatu behar da.

Interesatuak izena eman dezakete ekainaren 3tik 24ra liburutegian edo liburutegia@aizarnazabal.eus helbidera idatzita.

Crossfit ikastaroa

Urriari hasi eta ekainera arte Crossfit klaseak emango dira. Astean bitan, arratsaldean, eskainiko da eta ordutegia zehazteke dago, parte hartzaileen arabera.

Izena eman nahi duenak ondorengo telefono zenbakian egin dezake: 629 71 64 15 (Ruben).

SAN KRISTOBAL JAIK. AUZO AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Uztailaren 6an ospatuko den San Kristobal jaietako auzo afarirako txartelak salgai egongo dira ondorengo leku eta egunetan:

- Lekua: Uztarri
- Epea: ekainaren 10etik 30era.
- Prezioa:
 - Umeen menua: 15€
 - Helduen menua: 25€

UDALEKUAK. BEGIRALE LANPOSTUA

Uztailean burutuko diren udalekuek begirale moduan lan egin nahi duenak curriculumak bidali dezake mgabentura@gmail.com helbidera.

ERREFUSA EDUKIONTZIAREN ALDAKETA

Mankomunitateak errefusa edukiontzia aldatzeko inguruko oharra helaraziko du ekainean zehar.

Oharrean giltzaren banaketa noiz izango den eta bakoitzari dagokigun edukiontzia berri emango da, beraz, adi egon.

ERREPIDE MOZKETA AIZARNAZABAL ETA ZARAUTZ ARTEAN

Ekainaren 8an Zarautzko triatloia dela eta GI-2633 errepidea itxita egongo da trafikoarentzat 14:30etatik 14.45etara Aizarnazabal eta Zarautz artean.

Telegramen eskuragarri duzue antolakuntzak prestatutako trafiko plana.